



OROZKOKO UDALA

HIRIGINTZA ZERBITZUEN ETA OBRA-LIZENTZIEN GAINEKO TASA ARAUTZEN DAUAN ORDENANTZA FISKALA

(1997/11/25eko 227 zb. B.B.O.ean argitaratua eta 2010/02/11ko 28 zb. B.A.O.ean eta 2015/12/14ko 239 zb. B.A.O.ean, 2016/12/9ko 233 zb. B.A.O.ean eta 2019/12/17ko 240 zb. B.A.O.ean aldatua)

I. OINARRIA ETA IZAERA

1. artikulua.

Konstituzinoaren 133.2 eta 142. artikuluetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabiliz, eta Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauan ezarritakoari jarraiki, Udal honek hirigintza zerbitzuengatik eta obra-lizentziengatik Tasa ezartzen dau. Azken hori ondorengo, Ordenantza honen arabera arautuko da eta aitaturako Foru Arauan ezarritakoa araei lotuta egongo dana.

II. ZERGA-EGITATEA.

2. artikulua.

Tasaren zerga-egitatea da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko bagilaren 30eko 2/2006 Legean aipatzen diren eraikuntzako egintzek eta lurzoruaren erabilerek, udalerrri barruan egingo direnek, aipaturako Legearen Hirigintzako Arauak eta gainerako indarreko xedapenak betetzen dabezan egiaztatzeko eta horietan esku hartzeko Udalaren jardura teknikoa edo administratiboa; baita aurretiazko komunikazioa eskatzen daben eraikuntzako egintzei eta lurzoruen erabilerei lotuta emoten diren kontrol, ondorengo egiaztatze eta ikuskapen jarduerak ere eta, oro har, hirigintzako ikuskapenarekin, kudeaketarekin eta plangintzarekin lotutako zerbitzuak eta bestelako Zerbitzu Teknikoak emotea.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

3. artikulua.

1. Subjektu pasibo zergadunak dira, pertsona fisikoak edo juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aipatzen dituen erakundeak, hau da, eraikinak edo instalazioak egiten diren edo egiteko asmoa dagoen higiezinaren edo obrak burutzen diren edo burutzeko asmoa dagoen higiezinaren jabeak edo edukitzaileak edo errentariak, edo jagokezan zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dabezanak edo zerbitzu edo jardura horien onuradunak edo eraginpekoak direnean.

2. Zergadunaren ordezkioak izango dira obren kontratariak edo eraikitzaileak.



OROZKOKO UDALA

4. artikulua.

1. Subjektu pasiboaren zerga betebeharreari solidarioki aurre egingo deusie Zergei buruzko Foru Arauaren 41. artikulua aipatzen dabezan pertsona fisikoek eta juridikoek.

2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak arduradun subsidiarioak izango dira.

IV. ZERGA KUOTA.

5. artikulua.

Zerga kuotaren aplikazioa ondorengo tarifen arabera burutuko da:

1. Obra-Lizentziak: Eraikuntza, instalazio edo obraren exekuzio materialaren aurrekontua 0,01 egatik biderkatzearen emaitza dan zenbatekoa.

2. Alderdiren batek eskaturik, aurriaren aitorpenari buruzko zenbatekoa: 0,37 euro eraikinaren m³ko, eraikin baten aurriari buruzko espedientea hasi nahi izanez gero, eta 369,65 euro izango da gitxinezko kanona.

3. Baimen baten luzapena emoteak edo antzeko administrazio egitateak betetzeke tasaren %10 izango da.

4. Etxebizitzak lehenengo aldiz atzemateko baimenak egingo diren eraikin barriek Udalen Ordenantzek eta Hirigintza Planak ezarritako betekizunak betetzen dabezala frogatu beharko dabe Udalen jarduerak eta jardura horregatik ordainduko dan kuota ondorengo tarifa laukian adierazten da:

Etxebizitzen lehen okupazio lizentzia bakotxagatik:

- Eraikitako 150 metro karraturaino: 59,15 euro.

- 150-300 metro karraturaino: 103,51 euro.

- 300-600 metro karraturaino: 192,23 euro.

- 600-1.200 metro karraturaino: 384,44 euro.

- 1.200 metro karratu baino gehiagoko luzezabaleragatik aurreko tarifako 100 metro karratu gehiagotatik: 29,57 euro gehituko jako.

5. Behin eta baimenaren edo administrazioaren eskuhartzearen eskaera egin eta gero, proiektua aldaraziko da, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da likidazio barria ateratzeko. Baimena emoten ez bada, aurrekontu barriaren arabera jardungo da eta aurrekontu tasa likidatuaren parekoa izanez gero, ateratzen dan kuotari %5eko errekarua aplikatuko jako. Lizentzia emoteko egintza-administratiboa edo horren parekoa izanez gero, eta jatorrizko aurrekontuaren araberrako tasa likidatu eta gero, zerga-kuota kalkulatu da jarraian azaltzen dan moduan:

- Aurrekontua aurrekoa baino beheragokoa edo parekoa bada, tasa likidatuari %10 aplikatuko jako.

- Aurrekontua jatorrizkoa baino goragokoa bada, tasa likidatuari %10 aplikatuko jako eta Lehenengo aurrekontuaren eta bigarren aurrekontuaren arteko gairikari %0,8 aplikatuko jako.

- Adarazpenak eragin handia badu jatorrizko proiektuan, esaterako, bolumena, altuera edo forma aldatzen bada, edo solairuan atzeamten dauan azalera, eskailera eta igogailuen kokapena aldatzen bada, edo etxebizitza kopurua hazten edo gitxitzen bada, aurkeztutako aurrekontuaren tasa osorik sortuko da.



OROZKOKO UDALA

6. Hiri-lurzatiketak:

- Bereizi beharreko azalera m²-ko: 0,43 euro.
- Gitxienez: 36,97 euro.

7. Landalur-lurzatiketak: 71,17 euro.

Ez beharrezkotasuna aitortzea: 22,18 euro.

8. Hirigintza kalifikaziorako agiriak luzatzeagatik: 51,76 euro.

9. Hirigintza baimenen titulartasuna eskualdatzeagatik: 22,18 euro.

10. Aurretiazko komunikazinoa eskatzen daben obrekin lotuta emoten diren ondorengo kontrol edo egiaztatze jarduera administratiboengatik: eraikuntza, instalazino edo obraren exekuzio materialaren aurrekontua 0,01egatik biderkatzearen emaitza den zenbatekoa.

11. Jagokon lizentzia barik edo aurretiko eskabide barik hasitako obren legalizazinoa eskatzea: 150,00 €, egiaztatze-jarduketei eta legalizazino txostenari jagokona.

12. Udalak emongo dauazan obra handietako hirigintza-lizentziak eskuratzeko baldintza lez, eta eraikuntza eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dauan Eusko Jaurlaritzaren bagilaren 26ko 112/2012 Dekretua betez, eraikuntza eta eraispén-hondakinak behar dan lez kudeatuko dirala bermatzeko fidantza bat eratu beharko da Udal honen aurrean.

Fidantza eskudirutan, zor publikoko baloretan, abal bidez, kuzino-aseguruko kontratu bidez edo legez egin daitekeen beste edozein modutan eratu ahal izango da.

Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza eta eraispén-hondakinak kudeatzeko kostuan oinarrituko da, eta aitaturako kostuaren %120 izango da.

Aitaturako Dekretuan araututakoaren arabera itzuliko da fidantza.

Salbuespenak eta hobariak

6. Artikulua

Tasa honen ordainketan ez da inolako salbuespenik egongo.

Sortzapena

7. Artikulua

1. Tasa sortuko da eta zerga ordaintzeko betebeharra izango da, zerga egitatea osatzen dauan udal jarduerari hasiera emoten jakonean. Horrela, hirigintza-baimenaren eskaera aurkezten dan datan, edo aurretiazko komunikazinoarena, hala bajagoko, emongo jako hasiera jarduera horri, subjeto pasiboak espresuki formulatuko baleuz.

2. Obrak hasi edo betearazi baldin badira horiei jagokezan baimen barik, edo aurretiazko komunikazinoa aurkeztu barik, edo egindako obra baimendutakoa edo komunikatutakoa ez danean, obra horri baimena emon ahal jakon ala ez zehaztuko dauan udal jarduerari ekiten jakonean sortuko da Tasa. Hala eta guztiz ere, obra horien baimenerako edo baimenik emon ezean, obra horiek errausteko espediente administratiboari hasiera emon ahal izango jako.



OROZKOKO UDALA

3. Zerga ordaintzeko betebeharrak, behin sortu eta gero, iraun egingo dau nahiz eta eskatutako baimenik ez lortu, baimena aurkeztutako proiektua aldarazteko baldintzapean eskuratu edo baimena eskatzen dauenak behin baimen hori lortu eta gero, horri uko egin edo atzera egin. Ezta, azkenean, aurretiaz komunikatutako obra egiten ez danean ere, baldin eta tasaren zerga-egitatea egin bada.

4. Obra-lizentzia bat lortzeko interesaturik dagozanak, bera eskatu aurretik, kontsulta eskaera bat aurkeztu ahalgo dabe; guzti hau, egiteko proiektaturik daukien edozein eraikuntza, instalazio edo montaje industrialei buruzko edozein zalantza argitzeko asmoaz. Zalantza hauek, adibidez, hurrengo hauek izan ahalgo dira: terrenoen alineazioei edo sestrei buruz, terrenoetan eraikuntzak egiteko posibilitateari, eraikuntzen posibilitateari edo proiektatutako obren gaineko bereiztasunei buruzkoak eta hiri-antolaketa planakaz zerikusia daukien arauen aplikazioari buruzkoak ere.

5. Eskubideak likidatuko dira, baimenaren eskaera egiten dan egunean indarrean dagoan ordenantzak ezarritakoaren arabera.

Deklarazioa

8. Artikuloa

Lizentzia bat edo hirigintza-zerbitzu bat lortzeko interesaturik dagozan pertsonak, aldeztu aurretik Erregistro Orokorrean dagokion Kolegio Ofizialak sinatutako egiaztapenez eskaera aurkeztu beharko da; hirigintza-zerbitzuaren izaera eta tokia zehaztuz eta horren gainera, estimatutako zenbatekoa, neurketak eta destinaua agertu beharko da.

Kitapena Eta Diru-Sarrera

9. Artikuloa

Administrazioaren eskubideak bermatzeko xedeaz, eta Hazienda Lokalen 5/89 Foru Arauaren 26.artikuloan ezarritakoaz bat etorrituz, Ordenantza honek aipatzen dituan lizentzia eskaera guztiak, euren izapideak hasi orduko kitapena eginez geratu dan tasa ordaindu dauala egiaztatatu beharko dau.

Arau-Hausteak Eta Zigorrak

10. Artikuloa

Tributuen eta bere sailkapenen arau-hauste guztietan, eta kasu bakoitzean euren dagokietan zigor guztietan, Zergetako Foru Arauaren 77.artikuloan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jarraituko da.

AZKEN XEDAPENA.



OROZKOKO UDALA

Ordenantza honen oraingo testua Udalaren Osoko Bilkurak onartu eban 1997ko zemendiaren 11n , eta 2008ko urriaren 22ko, 2009ko abenduaren 21eko, 2010eko urriaren 29ko, 2011ko abenduaren 13ko, 2012ko zemendiaren 13ko, 2013ko abenduaren 10eko, 2014ko urriaren 31ko bilkura akordioaren bidez aldatu zan, aldaketa barria erantsi. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta bere argitapenaren ondoko egunean indarrean sartuko da, une horretatik aurrera aplikatuta eta indarrean iraungu dau bere aldarazpena edo indargabeketa erabagi arte.